



## DEMOKRAZIA

*Gaur DEMOKRAZIAREN baliora hurbilduko gara, Arizmendiarrietaren idatzietan.*

*Jakin dezazuen, maiztasunen arabera saillapenean hamaikagarrena da, Pertsona, Lankidetzeta, Gizarte Eraldaketa eta Hezkuntza goiburuarekin.*

*Berehala erakusten dizkigu horren mugak bere jardueran.*

***Gure demokrazia, hainbeste maite duguna, diktadura bihur daiteke bai goian daudenek boterea gehiegikeriaz erabiltzeagatik bai behean daudenek dagokien botereari uko egiteagatik. (099)***

*Eta funtsezko balio moduan identifikatzen du, ekonomia humanizatu nahi duen edozein proposamenen demokraziarako:*

*Elkarrizketa eta lankidetzeta, askatasuna eta konpromisoa, metodo eragingarriak dira giza lana antolatzeke eta administratzeko borondateak eta ahaleginak elkartu behar direnean eta, beraz, baita ekonomia humanizatzeko ere (096)*

*Bere pentsamenduarekin zintzo, Arizmendiarrietak eguneroko kudeaketako gaietan nola aplikatu adierazten digu.*

*Herriaz horrenbeste berba egiten dela-eta, ez dezagun ahantz Herria zerbitzatu nahia baino herria «bahitu» nahia egon daitekeela hor, hau da, herriaren kausa norberak nahi duenez edo lepoan daramanaz identifikatu gura izatea (355)*

*Ikuspegi proaktibo bat eskaintzen digu, demokrazia aktibo bat garatzeko:*

*Gaitasuna daukaten mendekoek, azkenean, baztertu egiten dituzte gaitasunik gabeko agintariak (474)*

*Eta pertsona bakarreko lidergoaren eta lidergo hori asmo txarrez instrumentalizatzearren arriskua ere identifikatzen du:*

*Konfiantza itsua opari pozoitua da (475)*

*1961eko udazkenean, ekintza batzuek arreata berezia sorrarazi zioten Don Jose Mariari, izan ere, urte hartako irailean editorial bat idatzi zuen "Cooperación" aldizkariako artikulua batean, "Nuestro punto de apoyo" izenburupean, baita urriko "Nuestra disciplina" idatzian ere.*



*Haietako hiru gogoeta aipatuko ditugu:*

*Bere aurrerabideari uko egiten ez dion gizakiak edo gizarteak, eta hori zigorrik eta indarkeriarik gabeko giza erregimen batean egin nahi badu, onartu egin behar ditu besteen presentziaren eta eskakizunen mugak: hau da, elkartasuna funtsezko zerbait moduan onartu behar du, eta, ondorioz, bere promozioa eta nahiak beste batzuek ere sentitzen dituztenetara baldintzatu behar ditu.*

*C12-1961/08*

*Agintzea oso gauza serioa da, eta, nahi bada otzantasuna eta lankidetzaz ondo ikusitako balioztat jotzea, aginterako promozioa bermeekin egin behar da.*

*Agintzen duenaren erantzukizunaren zentzuak ez du zalantzarako biderik utzi behar. Ahal dela, agindu behar dutenak aukeratzeko kontuan hartu beharreko ezaugarrietako bat izan behar da. C13-1961/09*

*Agintaria gizartearen elementu dinamiko eta funtsezkotzat jota, beharrezkoa da bere burua promozionatzea, atzetik datozenak ere promozionatu ahal izan daitezen, bakoitzari dagokion eskalan edo mailan. Agintean dagoenak horretarako ezgauza dela sentitzen duen unean, bere betebeharrak morala da bera gainditu dezakeenari pasoa ematea, elementu hertsigarria edo pieza ortopediko oztopatzailea ez izateko. Agintea baldintza horietan baliatzeak indiziplina giroa bultzatzen du. C13-1961/09*

*Demokrazia ez da lortzen den estatus bat. Antolamendu politikorako sistema bat baino gehiago da. Pertsona libre, solidario eta erantzuleek praktikatzeko dute.*